

Alberto Schommerren “Oroimenean” erakusketaren katalogoa argitaratu du Udalak

Argazkilariaren heriotzaren lehen urtemugan egin da erakusketa, eta 6896 bisita izan ditu dagoeneko

Hilaren 18ra arte Montehermoso jauregiko ur-biltegian ikusi ahal izango den “Oroimenean” erakusketa betiko jasota geratuko da Gasteizko Udalak argitaratu duen katalogoan. Gaurtik aurrera erosi ahal izango da liburu-dendetan eta Montehermoso kulturunean bertan. 6896 bisita izan ditu dagoeneko erakusketak.

“*Argazkigintza maitasun-ekintza bat da niretzat*”. Alberto Schommerren hitz horiek dira erakusketaren muina. Erakusketa bera, berriz, argazkilari ospetsuari jaioterriak bihotz-bihotzetik egindako omenaldia.

Katalogoan, erakusketan bertan bezalaxe, artistaren begirada gizatiarrena eta pertsonalena ez ezik, haren lanak eta hiriko beste argazkilari batzuen lanek ur biltegian sortutako solasa ikus dezakegu.

Azken hamarkadetan Espainiako arte-panoraman gehien nabarmendu diren eta nazioartean ospe gehien lortu duten argazkilarietako bat izan zen Alberto Schommerren heriotzaren lehen urtemuga zela eta egin da erakusketa. Zati nagusia egilearen beraren “Metropolis” erakusketako zazpi argazki eta Gasteizko Udal Artxiboko funtsetako beste 51 argazki osatu dute.

Multzoa bi ataletan banatu da. Lehena —*Ibilbidea*— biografikoa da, Schommerren haurtzaro eta gaztaroko Gasteiz irudikatzen duten argazki eta dokumentuek osatzen dute, eta hark jaioterriarekin zuen harremanaren zenbait alderdi islatzen ditu. Bigarrena —*Elkarrizketak*— haren lanari egindako omenaldia da. “Metropolis” izenburuarekin argitaratutako “*Hiriak/Ciudades*” laneko zazpi argazki oinarritzat hartu — lotura gisa ikonografia nahiz izenburua baliatuz— eta Gasteizko Udal Artxiboko funtsetan jasotako beste argazkilari batzuen lanekin erlazionatu dira, elkarrizketa sortzeko. Egilearen argitalpenen hautaketa bat ere eskaintzen da.

15 euroan salduko da katalogoa.

Bestalde, erakusketa dela eta antolatutako jarduera osagarrien programaren barruan, “Metropolis, la ciudad como escenario” hitzaldia emango du bihar, hilak 14, 19:00etan, Jon Gorospe argazkilariak. Hitzaldia —Arabako Argazkilarien Elkartearen laguntzarekin antolatua— ibilbide bat izango da, Alberto Schommer eta haren belaunaldiko argazkilarien lanaren hala moduzko ikuspegia emango digun mapa gisako bat.

El Ayuntamiento edita un catálogo sobre la exposición ‘Oroimenean’ de Alberto Schommer

La muestra, que ha tenido ya 6896 visitas y continúa hasta el día 18, se ha realizado con motivo del primer aniversario de su fallecimiento

La exposición “Oroimenean” que, hasta el día 18 de este mes preside el Depósito de Aguas del Palacio Montehermoso, y que hasta la fecha ha tenido 6896 visitas, quedará reflejada para siempre en el catálogo editado por el Ayuntamiento de Vitoria y que desde hoy se puede adquirir en librerías y en el propio Centro Cultural Montehermoso.

“*La fotografía para mi es un hecho de amor*”, estas palabras de Alberto Schommer son el núcleo de esta exposición que se plantea como un entrañable homenaje de la ciudad que le vio nacer al internacionalmente reconocido fotógrafo.

En el catálogo, al igual que en la exposición, podemos contemplar desde su mirada más humana y personal, a la conversación que su obra y la de otros históricos fotógrafos locales entablan en el Depósito de Aguas, marco de la muestra.

La exposición, realizada con motivo del primer aniversario del fallecimiento de Alberto Schommer, uno de los fotógrafos más destacados del panorama artístico español de las últimas décadas, se constituye de un núcleo de 7 fotografías de la exposición *Metrópolis* del propio autor, y 51 fotografías del fondo del Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz.

El conjunto se articula en dos apartados. El primero de ellos *Trayectoria-Ibilbidea*, de carácter biográfico, está formado por una selección de distintas imágenes y documentos en la que se recrea la Vitoria de su infancia y juventud y se recogen algunos aspectos de la relación de Schommer con su ciudad natal. El segundo, *Diálogos-Elkarrizketak*, es un homenaje a su obra, a través de una selección de sus publicaciones y de un Diálogo que partiendo de 7 fotografías de su trabajo *Hiriak/Ciudades* -publicado con el título de *Metrópolis*- y, utilizando como nexo de unión tanto la iconografía como el título de las mismas, establece una relación con imágenes de otros fotógrafos del fondo del Archivo.

El catálogo sale a la venta por 15 euros

Por otra parte, dentro del programa de actividades complementarias en torno a la exposición, mañana 14 de septiembre a las 19 horas, el fotógrafo Jon Gorospe presentará “*Metrópolis, la ciudad como escenario*”. La ponencia, realizada en colaboración con la Sociedad Fotográfica Alavesa, será un recorrido a modo de mapa segado a través del trabajo de Alberto Schommer y los fotógrafos de su generación.